

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EAE-KO ERAKUNDE AUTONOMOEN AURREKONTUKO FUNTZIONAMENDU GASTUEN ETA EGIAZKO INBERTSIOEN KAPITULUETAKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2015

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak joan den abenduaren 22an aho batez onartu zuen EAEko Erakunde Autonomoen aurrekontuko funtzionamendu eta inbertsio gastuen kapituluaren fiskalizazio txostena, **2015**eko ekitaldiari dagokiona.

Erakunde hauek zuzenbide publikoko erakundeak dira, nortasun juridiko propioa dutenak eta horien helburua, modu deszentralizatuan, EAEren eskumenari dagozkion jarduerak gauzatea da. Hona hemen fiskalizazio-gai izan diren erakundeak:

1. Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea eta Euskaltegiak Arautzekoa (HABE)
2. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)
3. Estatistikaren Euskal Erakundea (EUSTAT)
4. Emakumearen Euskal Erakundea (Emakunde)
5. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia (PLEA)
6. Laneko Segurtasun eta Osasuneko Euskal Erakundea (Osalan)
7. Kontsumobide
8. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua
9. Lehiaren Euskal Agintaritza (LEA)
10. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua (Gogora)

Obrak egin eta ondasun eta zerbitzuak kontratatzean ezargarria den **araudia** betetzeari dagokionez, HKEEk akatsak azaleratu ditu Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian (PLEA) eta Lanbiden. PLEAn gastuak alde aurretik dagokion espedientea bideratu gabe egin dira, 572.528 eurorenak; argindarraren hornidura zuzenean kontratatu da, 84.739 euroan; eta bere instalakuntzetan hainbat lan zatikaturik izapidetu dira. Lanbiden, berriz, gastuak egin dira alde aurretik dagokion espedientea bideratu gabe, 215.126 euroren zenbatekoan.

2015eko ekitaldian gastu hauen **kontularitzako erregistroari** dagokionez, HKEEk azaleratu du gehiegizko gastua erregistratu dutela HABEn (2015-2016ko euskara ikastaroak) eta IVAPen (administrazio publikoen zerbitzura diharduen langileriaren hizkuntza prestakuntza – 2015-2016 ikasturtea), hurrenez hurren 710.000 euroren eta 2,2 milioi euroren zenbatekoan.

Adierazitako alderdi horiez beste, ez da fiskalizazio-gai izan diren 10 erakundeen ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzea eragotziko duen akatsik azaleratu.